BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3844

903/2014 EBAZPENA, uztailaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendariarena, ondoren aipatzen den kudeaketa-gomendioko hitzarmena argitaratzea xede duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak eta Osatek, S.A. sozietate publikoak kudeaketa-gomendioko hitzarmen bat izenpetu dute, eta, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 15.3 artikuluan ezartzen duenari jarraituz, hitzarmen hori argitaratze aldera, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak eta Osatek, S.A. sozietate publikoak izenpetutako kudeaketa-gomendioko hitzarmenaren testua. Hitzarmenaren helburua da gutxiegitasun kardiakoa duten pazienteentzako telemonitorizazio- eta telelaguntza-programa bat egitea. Ebazpen honi erantsi zaio hitzarmena.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.

OSAKIDETZAREN ETA OSATEK SOZIETATE PUBLIKOAREN ARTEKO HITZARMENA, BIHOTZ-GUTXIEGITASUNA DUTEN PAZIENTEEN TELEMONITORIZAZIO ETA TELELAGUNTZAKO PROGRAMA KUDEATZEKO AGINTZEN DUENA.

Jon Etxeberria Cruz jaunak, Osakidetzako zuzendari nagusia den aldetik, bere karguari dagokiona betez, eta ente publiko horren izenean eta ordezkari, eta

Enrique Gutiérrez Fraile jaunak, Osatek, S.A.–ren zuzendari gerentea den aldetik, bere karguari dagokiona betez, eta sozietate publiko horren izenean eta ordezkari,

ADIERAZTEN DUTE

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak sortutako Osakidetza ente publikoaren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten biztanleen osasun-maila mantendu, berreskuratu eta hobetzea da.

Horretarako, Osakidetzak, Kronikgunerekin batera, eta United4Health (U4H) europar proiektuaren bidez, esku-hartze integratua hedatu nahi izan du, Bihotz Gutxiegitasuna (BG) duten pazienteen telemonitorizazioa eta telelaguntza erabiliz.

Proiektu hau aurreko proiektu pilotu batetik sortu zen, Renewing Health proiektutik, hain zuzen ere; horren bidez, frogatuta geratu zen telemonitorizazioak lagundu egiten duela pazienteen bizi-kalitatea hobetzen.

United4Health (U4H) proiektua «Competitiveness and innovation framework programme 2007-2013»programako Europako Batzordearen deialdien barruan kokatzen da. Ezaugarri hauek ditu:

- Izenburua: UNIversal solutions in TElemedicine Deployment for European HEALTH care
- Hasiera-eguna: 2013-01-01.
- Iraupena: 36 hilabete.
- Identifikadorea: CIP-ICT-PSP-2012-6.
- Helburua: aurreko Renewing Health proiektuan frogatutako telemedikuntzako zenbait zerbitzu berritzaile ustiatu eta hedatzea.
- Esku-hartzea: diabetesa, BGBK edo Bihotz Gutxiegitasuna (BG) duten paziente kronikoen telemonitorizazioa eta tratamendua. Zentro anitzeko 3 pilotu egingo dira. Euskadiren kasuan, proiektua Bihotz Gutxiegitasuna duten paziente kronikoekin garatuko da.
- Irtenbideak: pazienteari funtsezko eginkizuna ematea, medikamentu-mota eta dosia zehazteari begira; pazienteak tratamendua bete dezala sustatzea; eta, profesionalei okerragotzearen zeinu goiztiarrei antzematen laguntzea.
- Emaitzak: efizientziaren eta kostua-eraginkortasunaren ikuspuntutik egin beharreko ebaluazioa.

U4H inplementazio- eta hedatze-proiektua da, pilotu-fasetik inplementazio-fasera pasatzean sortzen diren hesiei eta antolaketa-aldaketei antzeman eta erantzuna eman nahi diena.

Proiektuaren berariazko helburu nagusiak hauek dira: bihotz-gutxiegitasuna duten Osakidetzako pazienteen osasun-onurak areagotzea; Osakidetzak dituen azpiegitura teknologikoak garatu eta horien erabilera bultzatzea, plataforma eta tresna bakoitzari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko; eta, osasun-sistemaren.

jasangarritasunari laguntzea, etorkizunean pazientea artatzeko ohiko jarduera gisa iraun dezakeen esku-hartzea diseinatuz.

Euskadin egingo den esku-hartzeak proiektuaren partzuergoak Europa mailan ezarritako baldintza batzuk bete behar ditu, bai maila klinikoan (sartzeko irizpideak, adierazleak, ebaluazio-metodologia) bai aurrekontuari dagokionez (partidak kontzeptu jakinei esleitzea).

Aipatutako helburuak lortzeko, funtsezko azpiegitura da Osatek, S.A.–k kudeatzen duen Telelaguntzako Zentroa, horrek duen izaera zeharkako eta korporatiboagatik.

Bestetik, Osatek, S.A., sortze-estatutuei jarraiturik, Sozietate Publiko anonimo gisa eratzen da, eta Osakidetza Ente Publikoa izango du bazkide bakarra.

Osatek, S.A.–ren sortze-estatutuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta sozietatea bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeek –Osakidetzak, besteak beste– beren helburu sozialarekin egindako jardunak, zerbitzuak eta beste edozein jardun egiteko agindua eman diezaiokete Sozietateari, betiere horrek administrazio-ahalmenak gauzatzea ez badakar. Sailak edo erakundeak –dagokion kudeaketa-aginduaren bitartez– agindutako lanak egin beharko ditu sozietateak, betiere agindua eman duenak bere kasa ezarritako jarraibideen arabera.

Kudeaketa-agindu horiek instrumentalak dira, kontratuz kanpokoak, eta, hortaz, ondorio guztietarako, barnekoak eta mendekoak dira. Sozietateak nahitaez bete beharko ditu, eta sozietatea atxikita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailaren arau organikoek adierazitako organoak nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideari jarraiki ezarritako tarifak aintzat hartuta ordainduko dira, sozietatea bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikotzat duten gainerako erakundeen parte-hartzearekin.

Bitarteko instrumental propioa eta zerbitzu teknikoa den aldetik sozietateari aginduko zaizkion nahitaezko jardunak proiektu, memoria edo bestelako dokumentu teknikoetan zehaztuko dira, kasuak kasu, eta dagokien aurrekontuan balioetsiko dira, ezarritako tarifei jarraiki.

Bitarteko instrumental propioa eta zerbitzu teknikoa denez, Osatek, S.A. Sozietate Publikoak ezin izango du parte hartu bitarteko propiotzat duten erakundeek deitutako lizitazio publikoetan; nolanahi ere, lizitatzaile bat ere agertzen ez bada, lizitazioaren xede den prestazioa gauzatzeko agindua eman diezaiokete.

Azkenik, aipatu beharrekoa da Laneko eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2013ko uztailaren 29ko Aginduaren bidez, Osatek, S.A.–ri Euskadiko Telelaguntzako zerbitzu publikoa emateko agindu zitzaiola.

Telelaguntzako zerbitzu publikoa emateko, Osatek, S.A.k G/211/99/1/0002/O701/0000/052012 espedientearen bidez kontratatutako hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen ditu.

Espediente horren «3. 11 Berrikuntza soziosanitarioa» atalak hau ezartzen du:

«Telelaguntza plataforma, lankidetza soziosanitarioaren esparruan, Lan eta Gizarte Politika eta Osasun Sailek erabili ahal izango dute kontratu honen xedearen gehigarriak edota osagarriak diren zerbitzuak emateko. Zerbitzu hauek kontratua indarrean dagoen bitartean gauzatuz gero, aldebiko espedientea izapidetuko da ezarri beharreko baldintza ekonomikoak zehatzeko, indarreko araudiaren arabera».

«Zerbitzu gehigarri edota osagarri» horien artean, osasunaren telemonitorizazioa aipatzen da.

Honaino adierazitakoaren arabera, alde biek

ADOSTU DUTE:

Lehenengoa.– Osatek, S.A.–ri agintzea Euskal Autonomia Erkidegoan United4Health (U4H) programa gauzatzeko.

Bigarrena.– Akordio honen I. eranskinean agertzen diren baldintza zehatzen arabera burutuko da agindu hori.

Hirugarrena.– Kudeaketa Agindurako Hitzarmen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

I. ERANSKINA:

Lehenengoa.– Kudeaketa Aginduaren xedea:

1.– Kudeaketa Agindu honen bidez, Osatek, S.A.–ri agintzen zaio United4Health (U4H) proiektuaren barruan osasun-telemonitorizazioko zerbitzua emateko, berak edo hirugarrenen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan esku-hartzea eginda.

2.– Eman beharreko zerbitzuaren titulartasuna Osakidetzari dagokio beti.

Bigarrena.– Osatek, S.A.–ri agindutako jarduera zehatzak

1.– TELEMONITORIZAZIOKO ZERBITZUA

a) Telemonitorizazioko zerbitzu-zorroari dagokionez:

1.– Oinarrizko telelaguntza-zerbitzua.

2.– Telemonitorizazioko gailuak hornitu, instalatu eta mantentzea.

3.– Erabiltzaileei telemonitorizazioko gailuak erabiltzeko prestakuntza ematea.

4.– Erabiltzaileei arreta emateko zentroa, telemonitorizazioaren euskarri tekniko gisa.

5.– Alarmen kudeaketa teknikoa: alarmak berraztertzea eta prozesuak automatizatzea, ezarritako prozeduren arabera.

6.– Behar diren komunitate-baliabideak mobilizatzea, erantzuna eman ahal izateko emergentzia sanitarioko egoerei (Osakidetzako Emergentziak eta Osasun Aholkua) edo bestelakoei (SOS Deiak), lapurreta edo sutea adibidez. Zainketa pertsonal ez-sanitarioak behar diren bestelako egoeretan, horiei dagokien arreta presentzialeko berariazko zerbitzua mobilizatu beharko du. Horrez gian, proiektuan inplikatutako lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko profesional sanitarioekin koordinatu beharko du, asistentziaren jarraitutasuna errazteari begira.

7.– Telefono bidezko jarraipena, erabiltzaileen gizarte-egoera gainbegiratzeko.

8.– Agenda kudeatzea: erabiltzaileei datu garrantzitsuak noizbehinka gogorarazteko, edo beharren araberako maiztasunarekin, erabiltzaileei egin beharreko jarduera jakinak gogorarazteko. Gogorarazpen horiek telefonoz egin ahal izango dira, edo mezuz, telemonitorizazioko gailuaren bidez.

9.– Alarma 24x7: Telelaguntza Zerbitzuko (betiON) oinarrizko telelaguntza erabiliko da.

b) Populazioari eta iraupenari dagokienez, xede-populazioa 300 pertsona dira, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan, pertsona bakoitzari zerbitzua urtebetez emanda, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera.

c) Azpiegitura teknologikoari dagokionez:

1.– Etxean telemonitorizatzeko plataforma Telelaguntza Zerbitzuko (betiON) zerbitzu-emaileak ematen du, konstanteak etxean jasotzeko eta telemonitorizazioko prozesua Telelaguntzako Arreta Zentroan kudeatzeko.

2.– Telemonitorizatzeko plataformak oraingo Telelaguntza Zerbitzuarekin (betiON) integratutako konponbidea izan behar du, eta, gainera, Osakidetzako informazio sanitarioko sistemarekin integratuko da. Atal honetan, betiON-eko informazio-sistemetan behar diren software-garapenak sartzen dira.

3.– Hauek dira telemonitorizazioko gailuak: pultsioximetroa (transmisio automatikoa), baskula (eskuzko transmisioa), tentsiometroa (transmisio automatikoa).

4.– Etxeko plataforma hartzaile/igorleak, ahal dela, konponbide finkoa, erabilgarria eta sendoa izan beharko du, eta telefonia finkoko sarea erabiliko du datuak transmititzeko. Pertsonaren profilak ahalbidetu eta inguruneko baldintzek arrazoizko egiten duten kasuetan, konponbide mugikorra erabiliko da.

d) Teleoperadore postuak betetzen dituzten pertsonei dagokienez:

1.– Postuak betetzeko betebeharrak ezartzea.

2.– Eskatu beharreko gaitasunak zehaztea.

3.– Teleoperadoreei prestakuntza ematea.

4.– Gaitasunen lorpen-maila ebaluatzea.

5.– Zerbitzu soziosanitarioen arloko telefonozko arreta-protokoloa, erantzun-ereduak eta kasuak bideratzeko zerbitzuen zerrenda egitea.

e) Informazioa transferitzea.

1.– Telelaguntzako Zerbitzu Soziosanitarioetako Arreta Zentroko plataformak sisteman parte hartzen duten guztien arteko datu-transferentzia bermatuko du, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean ezarritakoaren arabera.

2.– Zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko sistema ezartzea, eta ebaluatzeko adierazleak zehaztea.

1.– OSAKIDETZAREKIKO INTEGRAZIOA

Software-garapenak Osakidetzako informazio-sistemetan jasotzen dira, Osakidetzako Informatikako Zuzendariordetzak II. Eranskinean ezarritako neurrian eta zehaztapenekin.

Hirugarrena.– Prezioa eta ordaintzeko baldintzak.

1.– Osatek, S.A.–k jaso beharreko ordaina bi partidatan zatitzen da, agindutako jarduerak egituratu diren moduan:

1.1.– Telemonitorizazio Zerbitzua: 2014an, gehienez, 225.720 euro izango da (BEZik gabe), 57 euro erabiltzaile/hilabeteko prezioaren arabera.

1.2.– Osakidetzarekiko integrazioa: zenbatekoa 30.589,17 euro da (BEZik gabe), Osakidetzako Informatikako Zuzendariordetzak onartutako aurrekontuaren arabera (II. Eranskinean).

2.– Osakidetzak Osatek, S.A.–ri eredu honen arabera ordainduko dizkio egindako jarduerak:

Erabiltzaile-kopuruaren eta zerbitzuan emandako denboraren arabera ordainduko da, kontuan hartuta Osatek, S.A.–k ordaindu beharreko fakturen zenbatekoa Telelaguntza Zerbitzuko (betiON) zerbitzu-emaileak eskainitako prezioaren arabera kalkulatuko dela, eta Osatek, S.A.–ren gastu orokor eta korporatiboak agindutako jardueren kostuari egotziko zaizkiola.

3.– Osatek, S.A.–k hileko fakturazioak egingo dizkio Osakidetzari benetan egindako jarduerengatik.

Osatek, S.A.–k jarduerak gauzatzean izandako kostuak egiaztatuko ditu, hirugarrenekiko kontratazioa dela-eta ordaindu beharreko fakturen zerrenda zehatzaren eta kopien bidez.

Osatek, S.A.–k banakatu egingo du berak egindako fakturen zenbatekoa: batetik, hirugarrenekiko kontratazioa dela-eta ordaindu beharreko fakturen zenbatekoa; eta, bestetik, agindutako jardueren kostuari egotzi beharreko gastu orokor eta korporatiboen hainbanaketari dagokion zenbatekoa.

4.– Osatek, S.A.–k egindako fakturei zerbitzuaren informazio espezifiko hau gehitu beharko die, fakturatutako aldiari dagokionez betiere:

- Zerbitzuan iraun duten espediente ezberdinen kopurua (erabiltzaile-kopurua).
- Baja izan diren espediente ezberdinen kopurua.
- Telealarma 24x7 zerbitzuak jasotako dei-kopurua.
- Jarraipena egiteko egindako dei-kopurua.
- Beste zerbitzu komunitario batzuetara bideratutakoen kopurua.
- Jarraipena egiteko egindako bisita-kopurua.
- Agenda kudeatzeko zerbitzua duten erabiltzaileen kopurua eta erabiltzaile bakoitzeko deien batez bestekoa.
- Laguntza teknikoaren arloko kontsulta-kopurua.
- Zentralean jasotako osasun-konstanteen kopurua.
- Prozesatutako alarma-kopurua eta tipologiaren araberako kategorizazioa.
- Profesional klinikoekin kudeatutako hitzordu-kopurua.

Laugarrena.– Jarraipen Batzordea.

Kudeaketa-aginduaren xede diren jarduerei jarraipena egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Osakidetzako zuzendariak eta Osatek, S.A.–ko zuzendari gerenteak osatuko dute (edo, beraiek eskuordetutako pertsonek), eta beraien arloetako teknikariak izango dituzte laguntzaile.

Jarraipen Batzordearen eginkizunak:

a) Kudeaketa-aginduaren ondorioz egindako jarduerei jarraipena egitea, planteatutako helburuen lorpena bermatzeko.

b) Kudeaketa-aginduaren ondoriozko gastuaren gauzatzeari jarraipena egitea, baliabide erabilgarriak aintzat hartuta.

c) Jarraipen Batzordeak ez-nahikotzat joko balu kudeaketa-agindua gauzatzeko erabilgarri

dagoen kreditua, hala adieraziko dio Osakidetzari, dagokion gastu gehigarria izapidetzeko balizko aukerari begira (proiektuak duen aurrekontuaren kontura)), edo proiektuaren zenbaterainokoa aldatzeko.

Bosgarrena.– Datuak babestea.

1.– Datu pertsonalak babesteko araudiari betetze aldera, Osatek, S.A. abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikuluan aurreikusitako Tratamendu-Eragiletzat jotzen da, Osakidetzak ematen dizkion datuei dagokienez.

Tratamendu Eragile den aldetik, Osatek, S.A.–k telemonitorizazioko eta telelaguntzako zerbitzua jasotzen duten pazienteen datu pertsonalak soilik tratatu ahal izango ditu, Osakidetzan datu horien Tratamendu Arduraduna denak horretarako zehaztutako jarraibideen arabera.

Osatek, S.A.–ri horrela emandako datu pertsonalak ezin izango ditu erabili sozietate anonimo horrek hitzarmen honetan aurreikusi gabeko helburu baterako, eta ezin izango zaizkie jakinarazi beste pertsona batzuei, jakinarazpen hori datu horiek gordetzeko bada ere.

2.– Osakidetzak Osatek, S.A.–ri emandako datu pertsonalak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 9. artikuluko aurreikuspenen arabera gordeko dira; beraz, behar diren prozedurak eta sistemak ezarriko dira, baimenik gabe datu horiek aldatzea, galtzea, tratatzea edo horietan sartzea saihesteko.

3.– Kudeaketa-agindu hau bete ostean, datu pertsonalak suntsitu edo horien tratamenduaren arduradunari itzuli zehar zaizkio; eta, berdin jokatuko da tratatu beharreko datu pertsonalen bat duten euskarri edo dokumentuekin.

4.– Hitzarmen honen III. eranskin gisa, konfidentzialtasun-klausula ezartzen da, Osatek, S.A.–ko enplegatuek izenpetu beharrekoa, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz ezagutu ditzaketen datu pertsonalei dagokienez.

Seigarrena.– Kudeaketa-aginduaren indarraldia.

Kudeaketa-agindu hau indarrean egongo da 2014ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra.

Hala ere, hitzarmena izenpetutako alderdietako ezeinek aurreikusitako epeetan salatu ezean, isilbidez berritu daiteke beste urtebetez, horretarako aurrekontu-esleipena izanez gero.

Zazpigarrena.– Hitzarmena azkentzea.

1.– Hitzarmen hau azkenduko da:

a) Bi alderdiek hala adosten dutelako.

b) Azkendu beharreko eguna baino 2 hilabete lehenago, gutxienez, alderdiek salatzen dutelako.

c) Agindua eman duen Administrazioak errebokatzen duelako, kudeaketa-agindua bete behar duen Administrazioak bere eginbeharretako edozein ez betetzeagatik. Errebokazioa kudeaketa-agindua eman duen Administrazioaren ebazpen ziodunaren bidez egingo da, aurretik kudeaketa-agindua bete behar duen Administrazioari entzunaldia emanda.

d) Kudeaketa-agindua bete behar duen Administrazioak uko egiten diolako, agindua eman duen Administrazioak bere eginbeharretako edozein ez betetzeagatik. Uko egin aurretik, entzunaldia eman beharko zaio kudeaketa-agindua eman duen Administrazioari; izapide hori beteta, ukoa kudeaketa-agindua bete behar duen Administrazioaren ebazpen ziodunaren bidez egingo da.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren erregimen juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio-izaera du, eta, gauzatzean sortu litezkeen zalantzak eta hutsuneak bideratzeko, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

Bederatzigarrena.– Jurisdikzio-eskumena.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak arduratuko dira auzialdi bakarrean Hitzarmen honen ondoriozko errekurtsoez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hamargarrena.– Indarrean jartzea.

Hitzarmen hau izenpetzen duten bi Erakundeetako organo eskudunek onartzen dutenean jarriko da indarrean.

Aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, sinatzaileek hitzarmen honen bi kopia sinatzen dituzte, idazpuruan adierazitako lekuan eta datan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 1a.

Izpta.: JON ETXEBERRIA CRUZ Jn.
OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIA

ENRIQUE GUTIÉRREZ FRAILE Jn.
OSATEK, S.A.–ko ZUZENDARI GERENTEA

II. ERANSKINA

Lan-mota	Erakundea	Deskribapena	Zehaztapena	Oharrak	Orduak	Zenbatekoa (BEZik gabe)
1-Diseño		Diseño Funcional y Análisis de Impacto			35	1.894,90
1-Diseño		Soporte al desarrollo			40	2.165,61
1-Diseño		Diseño de la Interfaz del WS Origen con tres métodos: Alta, Baja y Modificación			15	812,10
1-Diseño		Diseño Técnico			23	1.245,22
3-PPU Modificación	Programas	Generar un campo en Programas Para discriminar el WS Origen (Televida u Otros)			9	487,26
3-PPU Modificación	Cliente	Alta Programa: Modificar para arrastrar el WS Origen			4	216,56
3-PPU Modificación	Cliente	Copia Programa: Modificar para arrastrar el WS Origen			9	487,26
3-PPU Modificación	Cliente	ReAlta Programa: Modificar para arrastrar el WS Origen			9	487,26
3-PPU Modificación	Cliente	Botón **Alta** Programa: Llamada a Método de negocio ComunicarAlta			2	108,28
3-PPU Modificación	Cliente	Botón **Copia** Programa: Llamada a Método de negocio ComunicarAlta			2	108,28
3-PPU Modificación	Cliente	Generar Botón **Baja** Paciente: Llamada a Método de negocio ComunicarBaja			2	108,28
3-PPU Nueva		Generación de Mockup para WS Origen			4	216,56
3-PPU Nueva		Encapsular Plan: encapsula la información del paciente, programas, actividades y umbrales		Incluye Script	110	5.955,41
3-PPU Nueva		Invocación mediante WSS a Servicio en Bus de Internet		Incluye Script, no se ha realizado esta integración. Es posible que se tenga que diferir una parte a Java.	118	6.388,54
3-PPU Nueva		Selección Objetivo: permite seleccionar el proveedor al que va dirigida la llamada (Televida u Otros)	La lógica debe recoger la información de los programas a los que está asociado el paciente y reenviar al proveedor. Duda: analizar el caso de que tenga más de uno. No creo que sea operativo que se tenga que configurar en el cliente	Incluye Script	40	2.165,61
3-PPU Nueva		ComunicarModificación: recoge la información y realiza la llamada al WS	Llamada a Encapsular Plan y Selección Objetivo para llamar a WS Origen: Modificación	Incluye WF y Script	9	487,26
3-PPU Nueva		ComunicarBaja: Invoca al WS externo para comunicar la baja	Recoge la información y realiza la llamada a "Selección Objetivo" y WS Origen: Baja	Incluye WF y Script	9	487,26
3-PPU Nueva		ComunicarAlta: Llamada a Encapsular Plan para llamar a WS Origen: Alta	Llamada a Encapsular Plan y Selección Objetivo para llamar a WS Origen: Alta	Incluye WF y Script	9	487,26
3-PPU Nueva		Gestión de Evento de Baja del Event Manager	Si se detecta la defunción actualmente realiza una baja de los programas. Adicionalmente se debe realizar ComunicarBaja para todos los programas en los que esté el ciudadano dado de alta.		8	433,12
3-PPU Nueva	Cliente	Generar Botón **Modificación** Paciente: Llamada a Método de negocio ComunicarModificación			2	108,28
4-Test		Test Integrado de Programa			3	162,42
4-Test		Test Integrado de Alta en Programa			6	324,84
4-Test		Test Integrado de Copia en Programa			6	324,84
4-Test		Test Integrado de ReAlta en Programa			2	108,28
4-Test		Test Integrado de Baja en Programa			3	162,42
4-Test		Test Integrado de Botón de Modificación en Programa			13	703,82
4-Test		Test Sistema de Programa			2	108,28
4-Test		Test Sistema de Alta en Programa			3	162,42
4-Test		Test Sistema de Copia en Programa			4	216,56
4-Test		Test Sistema de ReAlta en Programa			2	108,28
4-Test		Test Sistema de Baja en Programa			2	108,28
4-Test		Test Sistema de Modificación en Programa			6	324,84
4-Test		Test Sistema funcionalidad Completa			16	866,24
4-Test		Verificación de funcionalidad Completa Producción			6	324,84
5-Despliegue		Despliegue en preproducción: Despliegue aplicativo, Despliegue WS en BUS			7	378,98
5-Despliegue		Despliegue en producción: Despliegue aplicativo, Despliegue WS en BUS			7	378,98
6-Soporte		Soporte a Televida en la integración de los WS			18	974,52
				OROTARA	**565**	**30.589,17**

	Orduaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Orduaren zenbatekoa (BEZarekin)
Orduaren zenbatekoa	54,14	65,51

III. ERANSKINA

Nik, dokumentu hau izenpetzen dudanak, Osatek, S.A.–ko edo sozietate publiko horri zerbitzuak ematen dizkion enpresa bateko pertsonala naizen aldetik, Osakidetzaren ardurapeko datu pertsonalekin jarduten dut, Bihotz Gutxiegitasuna duten pazienteekin telemonitorizazioa eta telelaguntza erabiliz esku-hartze integratua egiteko Kudeaketa Agindua betetzean. Datu horiekin aritzean, Osakidetzak ezarritako segurtasun-neurriak, teknikoak eta antolamenduaren arlokoak bete beharko ditut. Horien erreferentzia 2011ko ekaineko Segurtasun Dokumentuan dago.

Bestetik, datu pertsonalak babesteko legeen arabera, neure gain hartzen dut ahalik eta zuhurtasun eta konfidentzialtasunik handiena izateko betebeharra, Osakidetzarekiko oraingo harreman juridikoak dirauen bitartean ente publiko horri lotuta jasotzen dudan informazio osoaz, bereziki datu pertsonalen fitxategietan sartutako pertsona fisikoei buruzko informazioaz. Betebehar horrek harreman juridikoa amaituta ere iraungo du.

Era berean, konpromisoa hartzen dut datu pertsonalak izan litzaketen eta, neure jarduera dela-eta, eskura izan nitzakeen edozein material, informazio edo dokumenturen kopiarik ez gordetzeko.

Nik, hau izenpetzen dudanak, soilik joko dut Osakidetzarekin lotura duten pertsona fisikoen datu pertsonaletara, hori beharrezkoa baldin bada eman beharreko zerbitzuak berekin dakartzan eginbeharrak betetzeko.

Horrez gain, konpromisoa hartzen dut eskura izan ditzakedan datu pertsonalak soil-soilik Osatek, S.A.–rekiko eginbeharrak betetzearren erabiltzeko, Bihotz Gutxiegitasuna duten pazienteekin telemonitorizazioa eta telelaguntza erabiliz esku-hartze integratua egiteko Kudeaketa Aginduari lotutako eginbeharrak, hain zuzen ere.

Halaber, konpromisoa hartzen dut behar beste segurtasun-neurri bete eta hartzeko, eskura ditudan datu pertsonalen konfidentzialtasuna, isilpekotasuna eta osotasuna bermatzeari begira; era berean, konpromisoa hartzen dut lege eta arauek datu pertsonalen konfidentzialtasuna, isilpekotasuna eta osotasuna bermatzeko exijitzen dituzten segurtasun-neurriak etorkizunean hartzeko.

Orobat konpromisoa hartzen dut eskura izan ditzakedan datu pertsonalak hirugarrenei ez lagatzeko, xedea horiek gordetzea izanik ere.

Azkenik, aitortzen dut erantzukizun-deklarazioa eta zehapena jaso nitzakeela, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezartzen dituen eginbehar guztiak bete ezean.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, agiri hau sinatzen duten …….. ko…….ren ……..an.

Sinatua:……..……Jn./And.